Bergarako Udala

ADMINISTRAZIO-BALDINTZEN PLEGUA

UDAL-TITULARTASUNEKO MENDI BATZUETAKO EGUR-APROBETXAMENDUA ADJUDIKATZEKO

(BEISTEGIKO-EGIA, ALDABE, SOSPETXU ETA ITURBIDE-GAINA IZENEKO MENDIAK)

ADMINISTRAZIO-BALDINTZEN PLEGUA

UDAL-TITULARTASUNEKO MENDI BATZUETAKO EGUR-APROBETXAMENDUA ADJUDIKATZEKO (BEISTEGIKO-EGIA, ALDABE, SOSPETXU ETA ITURBIDE-GAINA IZENEKO MENDIAK)

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da udal-titulartasuneko Bergarako mendi batzuetako egur-aprobetxamendua adjudikatzea (Elosua auzoko Beistegiko-Egia, Buruñao auzoko Aldabe, Elorregi auzoko Sospetxu eta Elosua auzoko Iturbide-Gaina izeneko mendiak). Guztiak Bergarako udal mugartearen barruan daude.(Lokalizazio planoa eransten da).

Kontratu honek lote bakarra du. Aprobetxamendu zurgaien tasazio-txostenak, Gipuzkoako Baso Elkarteak Beistegi-Egia, Aldabe eta Sospetxuri buruz egindakoak, eta Jon Orbegozo Ibarbia tasatzaileak Iturbide-Gainari buruz egindakoa, eranskin gisa erantsi zaizkio baldintza teknikoen pleguari.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 28. artikuluan dioenari jarraituz, udal teknikariaren memoria-txostenean honako hauek justifikatu dira: erakundearen xedeak; kontratuaren bidez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura; premiak asetzera begira xedearen eta edukiaren egokitasuna; eta kontuan hartutako beste edozein motatako faktoreak.

CPV kodea: 77211000-2

2.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

Kontratatzeko prozedura irekia eta arrunta da, eta balorazio-irizpide bakarra prezioa da. Horrenbestez, kontratu honen esleipenduna proposamen ekonomikorik altuena izango da.

3.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratuaren balio estimatua da 87.500 euro (% 12ko BEZa aparte).

Lizitazio-oinarriaren aurrekontua:

Lizitazioko oinarria edo prezioa (BEZ gabe) ..... 87.500 €

BEZ (% 12) ..... 10.500 €

Guztira ..... 98.000 € (BEZ barne)

Kostuen banakapena proiektuan dago jasota.

4. - LIZITAZIO-OINARRIAREN AURREKONTUA

Lizitazio-oinarriaren aurrekontua hau da: 98.000 euro (% 12ko BEZa barne).

Bergarako Udala

5.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa izango da kontratuaren adjudikaziotik irtengo dena, eta BEZa partida independente gisa agertu beharko du. Kontratuaren prezioaren barruan sartuta egongo dira aplikatu beharreko edozein motatako tributu, tasa eta kanonak; eta baita plegu honetan jasotako betebeharrak betetzearren adjudikatzailearentzat sor daitezkeen gastu guztiak ere. Halaber, zerbitzua emateko nahitaezko baimen edo lizentziak –foru- zein udal-mailakoak– lortzeko sortutako kostuak ere prezioaren barruan daudela ulertuko da.

6.- ORDAINTZEKO ERA

Pertsona edo erakunde adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalaren aldeko ordainketa honela formalizatu beharko du:

a.- Adjudikazio-zenbatekoaren % 50, kontratua formalizatu eta bi hilabeteko epean.

b.- Gainontzeko % 50a, aprobetxamendua amaitzen denean eta, edonola ere, kontratua egin ondorengo bederatzi hilabetera.

7.- ADMINISTRAZIOAK PRESTAZIOA FINANTZATZEA ETA BETETZEA

Kontratu–mota honetan ez da beharrezkoa toki-administrazioak inolako gasturik finantzatzea; beraz, ez da egin behar inolako kreditu-atxikipenik udal-aurrekontuen kontura.

8.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio prezio-berraztertzerik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 103. artikuluaren arabera.

9.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Exekuzio epea bederatzi hilabetean bukatuko da –kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita–.

10.- BEHIN BETIKO FIDANTZA

Adjudikazio-hartzaileak, kontratua sinatu aurretik edo kontratua sinatzerakoan, dagokion behin betiko bermea ezarri beharko du, hau da, adjudikazio-zenbatekoaren (BEZ kanpo) % 5aren parekoa.

11.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Plegu honetan xedatutakoaren arabera, Kontratatzailearen Profilean kontratu honi buruz argitaratuko den informazioa honako helbide elektronikoan eskuratu ahal izango da: www.bergara.eus.

II. KAPITULUA. - KONTRATATZEKO PROZEDURA

12.- KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko, gutxienez 300.000 euroko kapitala izango duen erantzukizun zibileko poliza bat aurkeztu beharko da (erantzukizun zibil orokorra, patronalekoa eta gurutzatua); aseguru horrek erantzungo baitu beste pertsonei eragin dakizkiekeen kalteengatik, betiere adjudikazioaren xede diren lanen exekuzioak dirauen bitartean bere langile, enplegatu edo menpeko iraunkor nahiz noizbehinkakoen egintzetatik edo bere makinaria eta tresneriarengatik edo egindako lanak lortzeagatik sortu badira. Hori justifikatzeko, II. eranskinean jasotako ereduari jarraituz aseguru-etxeak egindako ziurtagiria aurkeztuko da. Era berean, enpresa eskaintzailearen ordezkaritzan, zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kontratuaren xede den lanen erantzukizun zibilaren polizaren indarraldiari buruzkoa, III. eranskinaren ereduaren araberakoa.

13.- GAITASUN TEKNIKO ETA/EDO PROFESIONALA

Gaitasun teknikoa eta/edo profesionala egiaztatzeko, berriz, zerbitzu eman zaion erakunde publikoak edo enpresa-entitateak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, non egiaztatuko den aurtengoaren aurreko hiru urteetako batean zehar izaera bereko zerbitzuak egin dituela plegu honen lizitazio-oinarriaren pareko zenbatekoaren edo zenbateko handiago baten truke.

14.- LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak soil-soilik **baliabide elektronikoak** erabiliz aurkeztuko dira. Proposamenak hiru fitxategi elektronikotan aurkeztuko dira:

- 1. fitxategi elektronikoa: Dokumentazio administratiboa.
- 2. fitxategi elektronikoa: Dokumentazio ekonomikoa, eta automatikoki baloratu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazioa.

Fitxategi elektroniko bakoitzaren barruan, berriz, ondorengo agiriak sartu beharko dira:

- 1. fitxategi elektronikoa

1. fitxategi elektronikoaren barruan agiri hauek sartuko dira:

a) Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCren formulario normalizatua helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

"https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es".

Halaber, udalaren Kontratatzailearen Profilean XML formatua eskura daiteke, lizitatzaileek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.

b) Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkartea osatuko duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.

c) Atzerriko enpresen deklarazioa. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espainiako arlo guztietako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari.

d) Posta elektronikoko helbide bat errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko. (IV. eranskina)

e) Azpi-kontratazioa: Lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zatiren bat azpikontratatzea aurreikusten ote duten eta zati hori zein den, eta zehaztu egin beharko dute horren zenbatekoa eta lana egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa-profila –gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuz– (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 215-2a) artikulua).

Kontratazio Mahaiak edozein unetan justifikazio dokumentala eskatu ahal izango die lizitatzaileei, beren erantzukizunpean baldintzak betetzen dituztela adierazi dutena egiaztatzeko.

Lizitatzaileak gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatu zaion dokumentazioa, errekerimendua jasotzen denetik kontatzen hasita. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela, eta prozeduratik kanporatua izango da.

- 2. fitxategi elektronikoa

I. eranskinean jasotako ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa.

Inoiz ez da sartuko fitxategi elektroniko honetan 1. fitxategi elektronikoan sartu beharreko dokumentazioa. Dokumentu horietatik edozein sartuz gero 2. fitxategi elektronikoan, agiri horiek ez dira baloratuko.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.

15.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak **baliabide elektronikoak** soilik erabiliz aurkeztuko dira, Kontratatzailearen Profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan, hau da, **HOGEITA SEI (26) EGUN NATURAL**eko epean –lizitazio-iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita–, baina betiere azken egunean **13:00ak arte** bakarrik aurkeztu ahal izango dira. Epea larunbat, igande edo jaiegun batean bukatzen bada, hurrengo laneguneko eguerdiko 13:00etan bukatuko da epea.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta isilpekotasun hori bermatzeko baliabideak jarriko dira proposamenak ireki arte. Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak (data zifratzea eta baliozkotzea barne) Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman daude (https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/). Zerbitzu horiek erabiltzeak honako hau suposatzen du:

1.- Lizitatzaileak eskaintzak telematikoki prestatzea eta aurkeztea.

2.- Sistemak eskaintza horien zaintza elektronikoa egitea.

3.- Dokumentazioaren irekiera eta ebaluazioa plataformaren bidez egitea. Eskaintzak baliabide elektronikoen bidez bidaliz gero, bi fasetan bidali ahal izango dira: lehenik eta behin, eskaintzaren hatz-marka elektronikoa transmitituko da, eta hura jasotakoan ulertuko da ondorio

guztietarako eskaintza aurkeztu dela; eta, ondoren, gehienez ere 24 orduko epean, eskaintza bera bidali daiteke. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da, eta datu horien sortze-prozesuak bermatzen du datu horiek lotuta gelditzen direla ziurtasun osoz eskaintza horren edukiarekin; horrenbestez, datu-multzoak eskaintzaren edukian gerta daitezkeen aldaketak atzeman ditzake eta, horrela, eskaintzaren integritatea bermatzen du. Espedienteari erantsi beharreko agirien kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta bertan ezarritako ondorioak izango dituzte.

Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa, Telefonoa: 945 016 298

Interneteko helbidea: https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus

Ezkutukoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatzaileak plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatzaileek ezin izango dute aurkeztu aldaerarik edo alternatibarik.

16. LIZITAZIOAN BALORATUKO DIREN ALDERDIAK

Kontratazio honen adjudikazio-hartzailea nor den zehazteko orduan, prezioa izango da baloratuko den alderdi bakarra. Horrenbestez, adjudikazio-hartzailea proposamen ekonomiko garestiena izango da, betiere –logikoa denez– lizitazio-oinarri gisa ezarritako zenbatekoa gainditzen badu.

17.- AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak ireki aurretik, Mahaiak 1. fitxategi elektronikoan aurkeztatutako dokumentazioa sailkatuko du eta, horietan akats materialik antzemanez gero, Mahaiak hiru laneguneko epea eman ahal izango du lizitatzaileak akats horiek zuzendu ditzan.

Kontratazio Mahaiak proposamenak udaletxean irekiko ditu (San Martin Agirre plaza, 1), proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo ostegunean, 10:15ean, betiere aldez aurretik Kontratatzailearen Profilean beste datarik ez bada zehaztu.

Jendaurreko ekitaldi horretan, onartutako proposamenei dagozkien 2. fitxategi elektronikoak irekiko dira.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo gerta daitezkeen aldaketak argitara emango dira Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

PRESIDENTEA:

· Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.

MAHAIKIDEAK:

· Kontuhartzailea, edo hark eskuordetuko duena.

· Udaleko idazkaria, edo hark eskuordetuko duena.

. Kontratazio teknikaria; Kontratazio Mahaiko idazkari-lanak egingo ditu.

Mahaiaren bileretan parte hartu ahal izango dute udalean erantzukizun teknikoa duten pertsonek, Mahaiak aholkularitza emateko hala eskatzen duenean. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

18.- ADJUDIKAZIOA

Aurreko ekintzak egin eta gero, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala –originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztuz– hamar egun balioduneko epean –errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita–, kontratazio-mahaiak baloratu eta kalifikatu dezan:

a) Lizitatzailearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkaritzan jardunez gero, horretarako behar besteko ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Aurreko a) eta b) letretan adierazitako baldintzak egiaztatzeko, aurkeztu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Espainiako Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria. Ziurtagiri horri gehitu beharko zaio lizitatzailearen erantzukizunpeko aitorpena, non adieraziko den ziurtagiri horretan adierazten diren inguruabarrak ez direla aldatu.

Baldintza hori aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da –ziurtagiri horretan, aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren muga-eguna jasoko dira–, eta asegurua egiteko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bitartez, hala dagokion kasuetan.

c) Gaitasun teknikoaren egiaztagiriak, plegu honetako 13. artikuluan jasotakoari jarraituz.

d) Kaudimen ekonomikoaren egiaztagiriak, plegu honetako 12. artikuluan jasotakoari jarraituz.

e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratu-xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta emanda egotearen egiaztagiria, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea, edo bestela, kontratazio-organoari baimena ematea horren egiaztapena berak zuzenean lortzeko.

g) Behin betiko bermea eratu dela justifikatzeko dokumentazioa.

Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da eta hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

III. KAPITULUA. KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA ZERBITZUA GAUZATZEA

19.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA ZERBITZUA GAUZATZEA

19.1 Kontratua formalizatu beharko da berau adjudikatu eta 15 egun balioduneko epearen barruan. Kontratuen formalizazioa Kontratatzailearen Profilean argitaratu behar da, kontratua formalizatu eta gehienez hamabost (15) eguneko epean.

19.2 Zerbitzua egiteko epea bederatzi hilabetean bukatuko da –kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita–.

19.3 Matarrasa Bergarako Udaleko Nekazaritzako ingeniari teknikoak emandako jarraibideen arabera egingo da. Zerbitzua hasi aurretik, enpresa adjudikazio-hartzaileak lantokia irekitzeari buruzko jakinarazpena eta baliabide prebentiboaren izendapena aurkeztu beharko ditu udaletxean.

19.4 Adjudikazioa egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da –proposamenen irekieratik kontatzen hasita–, betiere kontrakorik erabakiko ez balitz. Aipatutako epeen barruan adjudikaziorik ez bada egin, lizitatzaileek proposamena erretiratzeko eskubidea izango dute.

19.5 SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratu hau gauzatzeko, izaera sozial, laboral, etiko, ingurumeneko edo beste motatako **betearazpen-baldintza berezi hauek** exijituko dira:

- Indarrean dauden legezko xedapen guztiak bete egin beharko dira: Lan arlokoak, Gizarte Segurantzakoak, Hitzarmen Kolektiboak, eta 31/1995 Legeak (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa) eta lege hori garatzen duten Errege Dekretuek jasotzen duten guztia (bereziki, langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipamendu indibidualen hornidurari dagokienean), eta baita zerga arloko guztia ere. Horrenbestez, horiek ez betetzeagatik edozein erantzukizunik sortuz gero, Udal Korporazioa hartatik zeharo salbuetsita gelditzen da.

Baldintza horiek kontratu-betebeharren izaera esentziala dute, eta horrenbestez, bete ezean, kontratua amaitutzat emateko arrazoia izan daiteke, SPKLaren 201. artikuluaren arabera eta 211.1.f) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Enpresa kontratu-hartzaileari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

20. - ENPRESA KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresa kontratista izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortu daitezkeen kalte-galeren erantzule, bai eta bere betebeharrak ez betetzeagatik sortzen diren kalteena ere; horretarako, dagokion **lanbide-arriskuengatiko kalte-ordainen asegurua** izan beharko du, eta aseguru horren balioa ezingo da izan kontratuaren guztizko balio estimatua baino txikiagoa.

Era berean, ateratze-lanen ondorioz pistetan eragiten diren kalteen erantzule ere izango da, eta horrenbestez, errematatzaileak lanen hasieran pistok zeuden egoera berberean lagatzeko konpromisoa hartuko du bere gain.

21.- KONTRATUA ALDATZEA

Udalak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiengatik, beste behar berri batzuengatik edo ezusteko kausengatik.

Aldaketa horiek kontratuaren finantza-erregimenari eragiten diotenean, udalak kontratistari konpentsazioa eman beharko dio, kontratua adjudikatzerakoan oinarrizkotzat hartutako ekonomia-suposamenduen oreka mantendu dezan.

Horrela, kontratuaren garapenari buruz udalak hartzen dituen erabakiek ez badute ekonomia-arloko eraginik, kontratu-hartzaileak ez du horiengatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

22.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratu-hartzaileak bete egin beharko ditu Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak, bai eta SPKLaren Hogeita Hamabosgarren Xedapen Gehigarritik eratorritakoak ere (Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta).

23.- HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratua amaitutakoan, horren harrera eta kitapena egingo da indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera. Kontratu-hartzaileak kontratua bete duela ulertuko da kontratu-hartzaileak xedea oso-osorik bete duenean, kontratuaren baldintzen arabera eta Administrazioaren oniritziaz.

Nolanahi ere, hori baieztatzeko, harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat egin beharko da, kontratuaren xedea burutu eta hurrengo hamabost egunen barruan.

Hiru hilabeteko epea ezartzen da, harrera edo adostasunaren datatik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, udalak adjudikazio-hartzaileari itzuli egingo dio udal honetan ezarri zuen behin betiko bermea, salbu eta adjudikazio-hartzaileak udalari edo ukitutako hirugarren pertsonei kalte-ordaina eman behar badie kontratua gauzatzeko beharrezko eragiketen ondorioz sortutako kalte-galerengatik.

Fidantza itzultzeko, Baso Zerbitzuaren adostasuna beharko da.

24.- KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratua amaitzeko arrazoiak ezarrita daude SPKLko 193.5, 211 eta 212. artikuluetan.

Amaitze horren ondorioei dagokienez, SPKLren 213. artikuluan araututakoa beteko da.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak, aurreko idatz-lerroei jarraituz legez aplikagarri izan daitezkeen arrazoiez gain, honako hauek ere izango dira:

- Eskatutako abalak ez ezartzea.

- Plegu honetan ezarritako epeak amaitu ondoren, enpresa kontratistari egindako errekerimenduan udalak ezarritako epean prezioa ez ordaintzea.

25.- KONTRATUAREN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Enpresa kontratistak berak egin beharko ditu lanak, eta ezingo dio kontratua –ez osorik, ez zati batean– beste pertsona bati laga, Bergarako Udalaren berariazko eta aldez aurreko baimenik gabe, eta SPKLren 214. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

Azpikontratazioari dagokionez, enpresa kontratistak hirugarren batzuekin hitzartu dezake prestazioaren zati bat egitea, baina prestazioa mugatzeak ez du inola ere ekarriko eskumenaren murrizketa eraginkorrik.

Nolanahi ere, azpikontratatzea aurreikusten bada, lizitatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute zein den azpikontratatzea aurreikusten duten kontratu-zatia, eta, horretarako, idatziz jakinarazi beharko dute, adjudikazioa egin ondoren eta kontratua gauzatzen hasi aurretik, azpikontratatu nahi den prestazio-zatia eta azpikontratistaren nortasuna, eta azpikontratistak hori gauzatzeko duen gaitasuna behar bezala justifikatu beharko du, SPKLren 215. artikuluan adierazitakoaren arabera.

IV. KAPITULUA.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak administrazio-izaera berezia izango du, eta honako hauek arautuko dute:

- Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan jasotako klausulak.
- Klausula hauetan aurreikusten ez denari dagokionez, honako hauetan xedatutakoa beteko da: 7/2006 Foru Araua (urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa); Estatuko arloko ordezko legeria (43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa); Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKL) eta lege hori garatzeko erregelamenduan aplikagarri diren arauak; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa.
- Eta besterik ezean, ordezko moduan, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, halakorik ezean, Zuzenbide Pribatukoak.

Kontratistak kontratuari aplikagarri zaion arautegia ez ezagutzeak ez du hori betetzeko duen obligaziotik salbuetsiko.

Kontratua aplikatzeko eta interpretatzeko, gauzatzeko, aldatzeko, betetzeko edo desegiteko orduan sor daitezkeen zalantzak kontratazio-organoak erabakiko ditu, eta horren akordioak eta ebazpenak berehala betearaztekoak izango dira.

Kontraesanik balego Baldintza Administratibo Partikularren Plegu honen eta espedienteari atxikitako dokumentazio teknikoaren artean, plegu honetan zehaztutakoa gailenduko da.

Bergarako Udala

27.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotzi dakiokeen erantzukizuna aitortzea, kontratua etetea, kontratua suntsitzeko erabakia hartzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, betiere SPKL Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioak betez.

28.- FORU PROZESALAK

Alderdiek Bergarako Udala dagoen lurraldeko jurisdikzio eskudunaren mende jartzen dira, plegu honetako kontratutik sor daitezkeen auzietarako.

V. KAPITULUA.- HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA GIZARTE-IRIZPIDEAK

29.- UDALEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK BETETZEA

Enpresa adjudikazio-hartzaileak jarraitu egin beharko ditu Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean jasotako hizkuntza-irizpideak; bereziki, hizkuntza paisaiako elementuei dagokienez (errotulu, argibide, herritarrentzako oharrak...).

Horrenbestez, elementu horiek euskaraz jarriko dira piktogramaz lagunduta, piktogramaren bitartez ulergarriak direnean. Halaber, euskara hutsean jarriko dira mezuak ezagunak edo berez ulergarriak direnean: euskaraz eta gaztelaniaz antzekoak direlako etab.

Aurreko bi kasu horiek gertatzen ez badira, ele bietan jarriko dira (euskaraz eta gaztelaniaz) euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik.

Halaber, euskarazko testuen egokitasuna zaindu beharko da eta horretarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da.

Udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara izanik, kontratatutako enpresaren eta udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira normalean, bai ahoz eta bai idatziz.

Udaleko Bulego Teknikoa eta, behar izanez gero, Euskara Zerbitzua arduratuko dira hizkuntza-irizpideon gaineko zehaztasunak azaltzeaz eta betetzearen jarraipena egiteaz.

30.- LAN-, GIZARTE- ETA GARDENTASUN-IZAERAKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA

Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak, lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak, eta, bereziki, egurraren sektoreko Hitzarmen Kolektibokoak, hitzarmen horrek une oro duen azken testuaren arabera.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak lanak hasi baino lehen aurkeztu egin beharko du bertan parte hartuko duten langileen zerrenda, eta baita enpresa azpikontratatuei dagozkien kideen zerrenda ere; eta egiaztatu egin beharko dute Gipuzkoan indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboaren menpe daudela.

Era berean, 19/2013 Legeak (abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 4. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratuaren adjudikazio-hartzailea behartuta dago administrazioari behar den informazio guztia ematera –hark errekeritu ondoren–, arau horretan bertan edo udal eremuan onartu daitezkeen arauetan ezarritako betebeharrak bete ahal izateko.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadin udal-titulartasuneko Bergarako mendi batzuetako (Elosua auzoko Beistegiko-Egia, Buruñao auzoko Aldabe, Elorregi auzoko Sospetxu eta Elosua auzoko Iturbide-Gaina izeneko mendiak) egur-aprobetxamendua kontratatzeko administratibo partikularren plegu hau 2025eko martxoaren 17an emandako dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, 2025eko martxoaren 17an

IDAZKARIAK

BERGARAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERGARA
SECRETARIA
IDAZKARITZA

Bergarako Udala

I. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Izena: .....

Helbidea: .....

PK ..... NAN zk: .....

Telefonoa: .....

Jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoa izanik,

□ *nire izenean, edo*

□ *honako honen ordezkaritzan:*

Izena: .....

Helbidea: .....

PK..... Telefonoa .....

NAN edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa izan): .....

Beistegiko-Egia, Aldabe, Sospetxu eta Iturbide-Gaina izeneko udal-titulartasuneko mendietan egur-aprobetxamendua egiteko Bergarako Udalak deitu duen prozedura ezagutu dudala eta, horrenbestez, honako hau adierazten dut:

1) *Beistegiko-Egia, Aldabe, Sospetxu eta Iturbide-Gaina izeneko udal-titulartasuneko mendietan egur-aprobetxamendua matarrasaz egiteko enkante publikoan parte hartzeko, eskaintza irmoa aurkezten dut.*

2) *2) Hitz ematen dut kontratua beteko dudala honako epe eta kopuruan: Epea: ..... Kopurua: ..... euro, gehi ..... euro, % ....ko BEZari dagozkionak.*

3) *Ezagutzen ditut Baldintza Teknikoen Plegua, Baldintza Administratibo Partikularren Plegua eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak, eta horiek neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.*

4) *Ordezkatzen dudan enpresak baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditu ireki, instalatu eta jarduteko, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituenaren arabera.*

ANEXO I

MODELO PROPOSICIÓN ECONÓMICA

Nombre: .....

Domicilio: .....

CP ..... DNI nº:.....

Teléfono: .....

En plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar,

□ *en nombre propio, o*

□ *en representación de:*

Nombre: .....

Domicilio: .....

CP..... Teléfono .....

DNI o CIF (según se trate de persona física o jurídica): .....

Habiendo conocido el procedimiento convocado por el Ayuntamiento de Bergara para la ejecución del aprovechamiento de madera de los montes de titularidad municipal denominados Beistegiko-Egia, Aldabe, Sospetxu e Iturbide-Gaina declaro:

1) *Que presento oferta firme para participar en la subasta pública para el aprovechamiento de maderas por corta a hecho (matarrasa) en los montes de titularidad municipal denominados Beistegiko-Egia, Aldabe, Sospetxu e Iturbide-Gaina.*

2) *Que me comprometo a ejecutar el contrato en un plazo de ..... y por la cantidad de ..... euros, más ..... euros correspondientes al ..... % de IVA.*

3) *Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.*

4) *Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones*

5) *Halaber, lan eta zerga alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dut nire burua.*

6) *Borondatez onartzen dut gardentasun instituzionalez jorratzea lizitazio-, adjudikazio- eta exekuzio-prozedurari buruzko datu guztiak, harik eta kontratua amaitu arte.*

(Non)....., 2025eko .....aren ....ean

Sinadura

exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento.

5) *Que asimismo, me obligo al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral y tributaria.*

6) *Que acepto voluntariamente dar transparencia institucional a todos los datos derivados del proceso de licitación, adjudicación y ejecución hasta la finalización del contrato.*

En ....., a ..... de 2025.

Firma

Bergarako Udala

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN-EREDUA

ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ESTALDURAREN ZIURTAGIRIA, LAN HAUETARAKO: UDAL-TITULARTASUNEKO MENDI BATZUETAKO EGUR-APROBETXAMENDUA (ELOSUA AUZOKO BEISTEGIKO-EGIA, BURUÑAO AUZOKO ALDABE, ELORREGI AUZOKO SOSPETXU ETA ELOSUA AUZOKO ITURBIDE-GAINA IZENEKO MENDIAK)

Jauna/Andrea:.....
. Aseguru-etxe honen ahalduna edo horren ordezkaritzan:.....
Edo bestela, Aseguru Artekaritza honen ahalduna edo horren ordezkaritzan:.....

ZIURTATZEN DU:

Ondoren adierazitako zenbakia duen polizak –adierazitako aseguru-etxearen eta aseguru-hartzailearen artean sinatu denak– lan hauetatik erator daitekeen erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua) estaltzen duela.

Poliza-zenbakia:.....

Aseguru-etxea:.....

Estalitako lanak: Udal-titulartasuneko mendi batzuetako egur-aprobetxamendua (Elosua auzoko Beistegiko-egia, Buruñao auzoko Aldabe, Elorreki auzoko Sospetxu eta Elosua auzoko Iturbide-Gaina izeneko mendiak)

Eta horrela jasota gera dadin, eta lan horren estaldura ziurtatzearen ondorioetarako, ziurtagiri hau ematen dut 2025eko .....aren .....(e)an.

III. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENA, HONAKO LAN HAUETAKO *ERANTZUKIZUN ZIBILA*REN POLIZAREN INDARRALDIARI BURUZKOA:

UDAL-TITULARTASUNEKO MENDI BATZUETAKO EGUR-APROBETXAMENDUA (ELOSUA AUZOKO BEISTEGIKO-EGIA, BURUÑAO AUZOKO ALDABE, ELORREGI AUZOKO SOSPETXU ETA ELOSUA AUZOKO ITURBIDE-GAINA IZENEKO MENDIAK)

Izen-abizenak: _____

Enpresa honen izenean eta ordezkaritzan: _____

KONTRATAZIO-MAHAIBURUAREN AURREAN, BERE ERANTZUKIZUNPEAN HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Ondoren adierazitako zenbakia duen polizak –adierazitako aseguru-etxeak sinatutakoak eta jarraian jasotzen diren lanen erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua) estaltzen duenak– indarrean iraungo duela aipatutako lanak bukatu eta haien harrera egin arte.

Poliza-zenbakia:.....

Aseguru-etxea:.....

Estalitako lanak: Udal-titulartasuneko mendi batzuetako egur-aprobetxamendua (Elosua auzoko Beistegiko-egia, Buruñao auzoko Aldabe, Elorreki auzoko Sospetxu eta Elosua auzoko Iturbide-Gaina izeneko mendiak).

DATA ETA SINADURA

Bergarako Udala

IV. ERANSKINA / *ANEXO IV*

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK /

DATOS A EFECTOS DE NOTIFICACIONES Y COMUNICACIONES

ORDEZKARIAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK / *DATOS DE IDENTIFICACIÓN DE REPRESENTANTE*

Izena eta abizenak /*Nombre y apellidos*	**NAN** / *DNI*
Helbidea, Udalerria eta Posta Kodea / *Dirección, Localidad y Código Postal*	
Jakinarazpenen abisua bidaltzeko posta elektronikoa / *Correo electrónico de aviso de notificaciones*	
Harremanetarako telefonoa / *Teléfono de contacto*	

*Jakinarazpenak ordezkariari egingo zaizkio. Jakinarazpen elektronikoa ikusteko identifikazio-sistema elektronikoa beharko du (B@kQ, NAN elektronikoa...) / *Las notificaciones se realizarán a la persona representante, que deberá acceder a la notificación electrónica mediante un sistema de identificación electrónico (B@kQ, DNI electrónico...)*

ORDEZKATUAREN DATUAK / *DATOS ENTIDAD REPRESENTADA*

Helbide soziala / *Razón social*	**IFZ** / *CIF*

* Aldi baterako enpresa-elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa-elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko / *En el caso de Unión Temporal de Empresas, adaptar el modelo para añadir los datos relativos a todas las personas que representen a cada una de las empresas que formarán la UTE.*

DATA ETA SINADURA / *FECHA Y FIRMA*

V. ERANSKINA / *ANEXO V*

KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTAZIOA / *DOCUMENTACIÓN CONSIDERADA CONFIDENCIAL*

IDENTIFIKAZIO DATUAK / *DATOS IDENTIFICATIVOS*

Izena eta abizenak / *Nombre y apellidos*	**NAN** / *DNI*
Helbidea, Udalerria eta Posta Kodea / *Dirección, Municipio y Código Postal*	
Jakinarazpenen abisua bidaltzeko posta elektronikoa / *Correo electrónico de aviso de notificaciones*	
Harremanetarako telefonoa / *Teléfono de contacto*	

ADIERAZTEN DU	***DECLARA***
Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela-eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**:	*Que considera confidenciales los siguientes **documentos, informaciones y aspectos** de la oferta por razón de su vinculación a secretos técnicos o comerciales:*

-
-
-

.....

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:	*Que dicho carácter confidencial se justifica en las siguientes razones:*

-
-
-

.....

SINADURA / *FIRMA*

Bergarako Udala

VI. ERANSKINA.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA / *ANEXO VI - PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES*

IDENTIFIKAZIO DATUAK / *DATOS IDENTIFICATIVOS*

Izena eta abizenak / *Nombre y apellidos*	**NAN** / *DNI*
Espediente zenbakia / *Número de expediente*:	

1.- Prebentziorako antolaketa-modalitatea (bat aukeratu):
- Prebentzio zerbitzu propioa
- Kanpoko prebentzio zerbitzua
- Prebentzio zerbitzu mankomunatua

2.- Kontratu honen exekuzioan prebentzio edo segurtasunaren alorrean izan daitezkeen gorabeherendako bitartekariaren kontakturako datuak:
- Izen-abizenak:
- Posta elektronikoa:
- Telefono zenbakia:

3.- **MUTUA**. Atxikitze-dokumentua doa eranskinarekin batera.

4.- **Arriskuen ebaluazioa** (zehatza, kontratuaren exekuzioari dagokiona). Eranskinarekin batera atxikita doa.

SINADURA

1.- Modalidad de organización preventiva (elegir una):
- *Servicio de prevención propio*
- *Servicio de prevención ajeno*
- *Servicio de prevención mancomunado*

2.- Datos de contacto de la persona mediadora para posibles incidencias en materia de prevención o seguridad en la ejecución del presente contrato:
- *Nombre y apellidos:*
- *Correo electrónico:*
- *Teléfono:*

*3.- **MUTUA**. Se adjunta documento de adhesión junto con el anexo.*

*4.- **Evaluación de riesgos** (detallado, correspondiente a la ejecución del contrato). Se adjunto junto con el anexo.*

FIRMA

Bergarako
Udala

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS

ADJUDICACIÓN DEL APROVECHAMIENTO DE MADERA DE LOS MONTES DE TITULARIDAD MUNICIPAL DENOMINADOS BEISTEGIKO-EGIA, ALDABE, SOSPETXU E ITURBIDE-GAINA

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL APROVECHAMIENTO DE MADERA DE LOS MONTES DE TITULARIDAD MUNICIPAL DENOMINADOS BEISTEGIKO-EGIA, ALDABE, SOSPETXU E ITURBIDE-GAINA

1.- OBJETO DEL CONTRATO

Constituye objeto del contrato la adjudicación del aprovechamiento de madera de los montes de titularidad municipal denominados Beistegiko-Egia (sito en el barrio de Elosua), Aldabe (sito en el barrio de Buruñao), Sospetxu (sito en el barrio de Elorregi) e Iturbide-Gaina (sito en el barrio de Elosua). Todos ellos ubicados en el término municipal de Bergara. (Se aneja plano de localización).

Este contrato está compuesto por un único lote. Los informes de tasación de los aprovechamientos maderables, realizado por Gipuzkoako Baso Elkartea referidas a Beistegi-Egia, Aldabe y Sospetxu y el realizado por el tasador Jon Orbegozo Ibarbia, referido en Iturbide-Gaina, se incorporan como anexo al pliego de condiciones técnicas.

En el informe-memoria del técnico municipal se justifican, conforme a lo señalado en el artículo 28 de la Ley de Contratos del Sector Público, los fines institucionales, la naturaleza y extensión de las necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato, la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, así como los factores de todo orden tenidos en cuenta.

Código CPV: 77211000-2

2.- PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN

El procedimiento de contratación es abierto ordinario, siendo el precio el único criterio de valoración. De esta manera, la propuesta económica más alta será la adjudicataria del presente contrato.

3.- VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El valor estimado del contrato es de 87.500 euros (12 % IVA no incluido).

Presupuesto base de licitación:

Tipo o precio de licitación (sin IVA) ..... 87.500 €

IVA (12%) .....10.500 €

Total ..... 98.000 € (IVA incluido)

El desglose de las costas se encuentra reflejado en el proyecto.

4. - PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

El presupuesto base de licitación asciende a 98.000 euros (12% IVA incluido).

Bergarako
Udala

5.- PRECIO DEL CONTRATO

El precio del contrato será el que resulte de la adjudicación del mismo y deberá indicar como partida independiente el IVA. En el precio del contrato se considerarán incluidos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como todos los gastos que se originen para la adjudicataria como consecuencia del cumplimiento de las obligaciones contempladas en el pliego. También se entenderán incluidos los costes generados de los permisos o licencias que sean preceptivos, tanto a nivel foral como municipal, para la prestación del servicio.

6.- FORMA DE PAGO

La persona o entidad adjudicataria formalizará el pago a favor del Ayuntamiento de Bergara de la siguiente manera:

